

# DIRU-LAGUNTZAK 2018KO ARTE ETA KULTURA LANETARAKO

Udalak sormen propioa eta proiektu artistiko eta kulturalak sustatu nahi ditu gure eskualdean: musika, dantza, antzerkia, arte plastikoak, argazkilaritza, pintura, poesia, ipuinak...

Nork eskatzen ahal ditu?

## EDOZEIN PERTSONAK EDO PERTSONA TALDEK

- Betekizunak:
- Eskabidea (udaletxean eskuragai)
- Aurkezten den proiektua, zehaztua, eta aurrekontua.
- NANaren kopia konpultsatua.

## IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTEAK ETA ENTITATEAK:

- Betekizunak:
- Eskabidea (udaletxean eskuragai)
- Aurkezten den proiektua, zehaztua, eta aurrekontua.
- IFKaren kopia konpultsatua.
- Idazkariaren ziurtagiria, non beste diru-laguntzarik jaso den edo ez adierazten den
- Estatutuen kopia
- Zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak izatearen aitortpena.

Aurkezteko epea: Ekainaren 23a arte.

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Gazteek edo gazteendako eginiko proiektuak.
- Ultzamako bizilagunak edo elkarteak (errolaturik daudenak)
- Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen duten proiektuak.
- Genero ikuspegia kontuan hartzen duten proiektuak.
- Ultzamako Bailara oinarritzat duten proiektuak.
- Diziplina desberdinak nahasten dituzten proiektuak.
- Kalitatea, interesa eta originaltasuna.

Zenbatekoa: 2.500 € banatuko dira

Zenbateko hori aurkezturiko proiektuen artean banatuko da, betiere eskaturiko gutxienekoa gainditzen badute (Proiektu bakoitzarendako gehienez: 1.250€)

Proiektuan ez da izenik azaldu behar, ebaluazioa plika sistemaren bitartez egingen baita

Deialdiaren oinarriak eskuragai daude Ultzamako udaletxean. Gaiari buruzko argibideak behar izanez gero, Karmentxu Garcés (Gizarte eta Kultura animatzailea) 948-305353

ULTZAMAKO UDALA

